

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

BALIABIDE FISIKOAK

Gure baliabide fisiko nagusia **txipa** da, gure enpresa honen salmentan oinarritzen baita. Gainera, txipa osa dezaketen osagarrien salmenta eskaintzen dugu.

BALIABIDE TEKNOLOGIKOAK

Denda fisikorik ez dugunez, gure produktuak online saltzen ditugu gehienbat, eta salmentak egiteko **webgune** baten mende gaude. Aurretik zehaztu dugunez, **sare sozialek** paper garrantzitsua beteko dute enpresaren publizitatea egiteko, eta horretaz baliatuko gara. Txipak lokalizatu behar direnez, erabiltzaileek horretarako doako **aplikazio** bat izango dute eskura.



GIZA BALIABIDEAK

UBICAP S.A. enpresaren motor nagusia gu gara, enpresaren **jabeak eta langileak**. Hala eta guztiz ere, gure **hornitzaileak** ezinbestekoak dira; Google baita txipak ematen dizkigun hornitzailea. Bestalde, Kiwoko eta Giftcampaingekin aipatutako aliantzen bidez, osagarriak lortzen ditugu. Azkenik, **ekipo informatiko** bat kontratatuko dugu, gure sare sozialak, webgunea eta aplikazioa administratu, diseinatu eta eguneratzeko.

BALIABIDE INTELEKTUALAK

Enpresako kide guztiok enpresa-munduarekin lotutako zenbait ezagutza ditugu, eta **Sarikoko eta Deustuko unibertsitateetan lizentziatuak** gara. Enpresa bat sortzen esperientziarik ez dugun arren, prozesuan gidatuko gaituzten **mentoreen laguntza** dugu. Gainera, gutako batek **Zuzenbideko titulazioa** du, eta horrek legegintzako alderdi guztiekin laguntzen digu. Etorkizunera begira, enpresa nazioartera zabaldu nahi dugu, eta **ingelesez** eta **alemanez** ditugun trebetasunak oso lagungarriak izango dira.

